

## 1. KANALAK:

Gure hostela bezero posibleetara iristeko hainbat tresna eta metodo erabiliko ditugu, honen publizitatea eta propaganda egiteko eta bezeroekin harremanetan jartzeko. Enpresa mota bakoitzak baliabide desberdinak erabili dezakete harreman hau lortzeko, eta guk horretarako 3 leku desberdinetan aurkeztuko dugu geure proiektua.

Lehenik eta behin, instagram sare soziaz baliatuko gara geure burua promozionatzeko, aplikazio honek ematen dituen tresnak erabiliz. Bertan, hostelaren kontaktua egongo da ikusgai gurekin kontaktatu edo galderaren baten erantzun nahiko balute. Horrez gain, instalazioen berri emango dugu hauen imagina eta bideoak erakutsiz eta aldaketa edo eguneraketan berri emango dugu, horrela jende gehiagok ezagutuko luke gure hostela.

Bigarrenik, bookingeko webean aurkeztuko gara hostelaren aurkezpen zabalago bat erakutsiz, denetariko xehetasunekin. Aplikazio honen bidez, erreserbak egiteko aukera emango die bezeroei.

Azkenik, gure webgune propio bat sortuko dugu, non hostelaren aurkezpen zabal bat emango dugu, bookingen aurkeztutako antzekoa. Gainera, erreserbak egiteko atal bat egongo da eta gure zerbitzua erabili duten beste bezeroen kritikak eta iritzia izango dira ikusgai bertan, datorren bezeroari laguntzeko.

